

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezero nagusiak ikastetxeak dira, batez ere DBH eta Batxilergoko ikasleak dituztenak. Helburua da ikasleen ongizatea hobetzea eta euren errendimendua igotzea, eta ikastetxearen irudia moderno eta arduratsua izatea. Laburbilduz, gure bezero-eredua honela da: “Ikasleen ongizatea eta kontzentrazioa hobetu nahi duten ikastetxeak.”

Bezero hauek hainbat ezaugarri dituzte. Ikasleak 12–18 urte ingurukoak dira, eta ikastetxeko irakasleak eta zuzendaritza-taldeak erabakiak hartzen dituzte. Ikastetxeek ikasleen ongizatea eta lasaitasuna nahi dute, errendimendua hobetzea bilatzen dute, eta proiektua segurua, erraza eta kostu kontrolagarria izan dadin nahi dute. Proiektuak ikastetxe bakoitzaren beharren arabera pertsonalizatu daitezke, eta hasiera batean tokiko ikastetxeetan jar daitezke, baina gero nazio mailan hedatu daitezke.

Segmentazioa oso garrantzitsua da, bezeroak baitira gure negozioaren funtsezko zatia. Horrela, proiektua ikastetxearen beharren arabera egokitu dezakegu, baliabideak modu eraginkorrean erabil ditzakegu eta mezu zuzena bidali dezakegu, ikasleen ongizatea hobetzera prest dauden ikastetxeei bakarrik. Aukeratutako segmentuak ez dira ikastetxe guztiek egokiak; soilik ikasleen ongizatea eta ikaskuntza hobetzera prest dauden ikastetxeetan funtzionatzen dute.

Gure enpresak merkatu segmentatua du. Ez da guztiei zuzenduta dagoen merkatu masiboa, baina ezta nitxo txikia ere. Ikastetxeak taldeka banatzen dira, beharrak eta lehentasunak komunak dituztenak, eta proiektua horiei egokitzen zaie.

Adibidez, gure zerbitzua ikasleen atsedeen hartzeko eta kontzentrazioa hobetzeko espazioak eskaintzea da, eta gure bezero motak honakoak dira: ikasleen ongizatea lehenesten duten ikastetxe modernoak.